

# JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA

2022ko iraila  
2023ko maiatza

MEMORIA



## Edukiera

TESTUINGURUA ETA 2022-2023 IKASTURTEKO BERRITASUNAK .....	2
Zifra nabarmenduak.....	4
JARDUEREN AZTERKETA.....	5
Jarduerak, motaren arabera .....	5
PARTE-HARTZEAREN AZTERKETA.....	7
Parte-hartzea, sexu-generoaren arabera.....	7
Parte-hartzea, jarduera motaren arabera.....	9
Lehen aldiz parte hartzea.....	12
AMAIERAKO ZENBAIT GOGOETA .....	15
1.- PARTE-HARTZEAREN DATUEI BURUZ - AZKEN IKASTURTEETAKO ALDERAKETA	15
2.- JARDUEREN FORMATUEI BURUZ.....	16
Inaugurazioa eta itxiera: .....	16
Hitzaldiak: .....	16
Lantegiak: .....	17
Egindako tailer egonkorak: .....	18
Arte eszenikoak: .....	18
Zineforuma:.....	18
3.-EUSKERA.....	20
4.- #FEMINISMOANITZEL.....	21
5.- KOMUNIKAZIOA ETA SARE SOZIALAK .....	22
6.- BESTELAKO ALDERDIAK: HAURTZAINDEGIA, IRISGARRITASUNA ETA TOKIA: .....	23
Hurtzaindegia, zaintza-zerbitzuak .....	23
Zeinu-hizkuntzako interpreteak.....	23
Emakumeen Etxeko guneen kudeaketa eta dinamizazioa eta Eskolaren inpaktua .....	24
Ahalduntze kolektiboa .....	24

## TESTUINGURUA ETA 2022-2023 IKASTURTEKO BERRITASUNAK

Gasteizko Jabetze Feministarako Eskolaren XII. edizioa izan da honako hau. Azken urteetan, Emakumeen Etxeko prestakuntza-proiektu gisa aurkeztu da Eskola, eta, hain zuzen ere, Eskolak hortik jasotzen ditu bai **babesa**, bai ahaldundze feministarako sortutako **baliabideak, zerbitzuak, prozesuak eta topalekuak**.

Urtero bezala, Etxeguneko kolektiboek (Etxearen guneko parte-hartzailea da Etxegune) eta Eskolaren entitate laguntzaileek **parte har zezaten** sustatzea izan da helburu nagusia; hala, egitaraua sortzen lagundu diete, eta Berdintasun Zerbitzuak sustatutako prozesuei lagundu diete, Udalaren beste zerbitzu eta sail batzuekin nahiz beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz.

Beste urte batez, **interseksionalitate** abiatuta lan egiteko konpromisoa izan da ibilbide-erria, Eskola inklusibo, anitz eta guztiontzat irisgarria sortzeko. Bada, horregatik aipatzen zituen 2022-2023ko ikasturteko editorialak "ikusezinak", eta horregatik gonbidatu zituen Eskolako parte-hartzaileak ikusezina den hori ikusgai egiten jarraitzera.

### Edizio honen alderdi aipagarriak:

**Eskolako hitzaldiak.** Hitzaldi guztiak eskaini dira aurrez aurre eta online (streaming bidez), eta, azken aukera horretan, denbora errealean eman dira, udal-webaren EEF-endirecto atalaren bidez. Ikasturte honetan, Emakumeen Etxearen barruan, **"Solasaldi feministak"** topalekua jarri da martxan, hitzaldietan jorratutako gaietan sakontze aldera.

**Ikerlan Feministen III. Lehiaketa,** EHUren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterrarekin lankidetzan. Edizio honetan, lehen aldiz, ikerketa-lanean aritzeko bidelaguntza eskaini da, Ixone Fernández de Labastida Gizarte Antropologiako ikertzaile eta doktorearen ardurapean, akademiaren edo ikerketaren eremuan lan egiten ez dutenek ere egitasmoan parte hartu ahal izan zezaten. Maiatzaren 15ean, edizio honetako bi sariak banatu ziren, bi beka emanez:

*Dificultades y desafíos para el empoderamiento feminista individual y colectivo de las mujeres migradas y racializadas mediante la participación activa en procesos organizativos en Vitoria-Gasteiz, desde una perspectiva interseccional, feminista y decolonial*

(Tania Cañas Siriany y Katherine Astudillo)

*Hilekoa: errealitate eta fikzio. Narratiben ekoizpena ikergai Gasteizko feminismo(eta)tik euskal literaturara*

(Ainhoa Aldazabal Gallastegi y Udane Barinagarrementeria Laka)

Edizio honetan, lehen aldiz baita ere, GOFerekin lankidetzan, desgaitasun intelektuala dutenentzat irisgarriak ziren jarduerak identifikatu eta seinalatu dira, eta bidelaguntza espezializatua eskaini da, **hala eskatzen zutenentzako monitore lagungarriekin**. Eraitza oso ondo baloratu dute; hortaz, datozen edizioetan, proposamen hori indartzea aurreikusi da.

## Zifra nabarmenduak

Aurrez aurreko 8 hitzaldi; lineako 4 hitzaldi Herri Handiren esparruan; 5 proiektzio Florida zinema-aretoan, "Zineforuma 3ren artean" egitasmoaren barruan; 4 irakurle-klub; arte eszenikoen 7 ikuskizun eta 30 ikastaro/lantegi. Horretaz gainera, haur eta gazteei zuzendutako 14 jarduera #FeminismoanItzel atalean, eta bi beka Azterlan Feministen Lehiaketan.




## JARDUEREN AZTERKETA

61  
programatuta

6  
bertan behera

55  
eginda

## Jarduerak, motaren arabera



Burutu diren 55 jardueren zatirik handiena "ikastaroei eta lantegiei" dagokie, 30 guztira (% 49); gainerakoan, 13 "hitzaldi" (% 21), 7 "arte eszeniko" (% 11), 5 "zineforum" (% 8), 4 "irakurle-klub" (% 7) eta Eskola "irekitzeko" (% 2) eta "ixteko" (% 2) ekitaldi bana dauzkagu.

Inskripzio-  
faltagatik bertan  
behera  
geratutako  
lantegiak:

1.1) Zineman aditu: Begirada eta entzumena artatuz

1.2) Sexualidad saludable y diversidad

1.3) Autodefensa feminista (EUS)

---

Trebatzailea  
bajan  
egoteagatik edo  
agenda-  
kontuengatik  
bertan behera  
geratutako  
lantegiak:

1) Claves para analizar violencia machista y construir respuestas colectivas. (sakontze-lantegia)

---

2) ¡Que viene lo queer!

---

1.3) Identidades trans y microcisexismos


---

Bi lantegitan aldaketak egin dira; batean, trebatzailea bajan zegoelako, eta, bestean, parte-hartzaileek ezin zutelako. **Itxierako** ekitaldian, halaber, ikuskizuna aldatu zen, aurreikusitako ikuskizuneko artista batzuk bajan zeudelako.

## PARTE-HARTZEAREN AZTERKETA

### Parte-hartzea, sexu-generoaren arabera

2.346 pertsonaren sexu-generoari buruzko datuak<sup>1</sup>:



Parte-hartzaileen % 86 emakumeak izan dira (2.019 emakume), eta % 12 gizonak (285 gizon). % 1 ez-binario gisa identifikatu dira (16 parte-hartzaile), eta beste % 1ek ez diote galderari erantzun (26 parte-hartzailek). Ehuneko horiek aurreko ikasturtekoen antzekoak dira (2021-2022: % 88 emakumeak, % 11 gizonak, % 1 ez-binarioak, % 0k ez zuten erantzun). Jardueretara joan diren gizonen ehunekoa (% 11) aurreko edizioetakoa baino zertxobait txikiagoa izan da (aurrekoetan, % 12-14 inguru); halere, kontuan hartu behar dugu zenbait jarduera emakumeei

<sup>1</sup> Azalpenak:

-Datuak balorazio-galdetegietatik datozenean, parte-hartzaileek definitzen dute beren burua eskaintzen zaizkien aukeren artean.

-Inskripzioen datuak MAE sistematik datoz, eta aukera binarioak baino ez ditu eskaintzen (emakumea eta gizona).


-Hitzaldietan, zuzeneko behaketaren bidez egiten da sailkapena, eta, jakina, huts egiteko aukera dago.

-Jarduera batean, ez daukagu daturik 21 parte-hartzaileen sexu-generoari buruz. Zehazki, honako zineforum honetan: "La vida era eso".

bakarrik zuzendu zaizkiela eta bi zineforumetan ez dela datu hori jaso (zineforumetara, gizonen ehuneko handiagoa bertaratzen da). Batez ere, emakumeek hartu dute parte (% 88). Ez-binarioen laukitxoak markatu dutenak % 1 izan dira.



## Parte-hartzea, jarduera motaren arabera



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, jarduerak onarpen handia izaten jarraitzen dute, eta arte eszenikoak eta hitzaldiak nabarmentzen dira onarpen handieneko jarduera gisa.

**Hitzaldiek eta arte eszenikoek izan dute parte-hartzerik handiena**

Ikasturte honetan, **izen-emateek igoera handia izan dute, eta aurrez aurreko asistentzia handiagoa izan da, aurreko edizioekin alderatuz gero.** Halere, online parte-

**Izen-emateak  
eta aurrez  
aurreko parte-  
hartzea gora**

hartzeak beheranzko joera dauka, formatu horren eskaintza eta programazio gutxiago daudelako; izan ere, COVID 19aren pandemiatik irten garenetik, Eskolaren programazioak aurrez aurreko parte-hartzea sustatzea du helburu.



### Euskaraz eskainitako jarduerak:

1. Hablemos claro [Hitzaldia]
2. Horrela tratatzen gaituzte eta honela tratatu beharko gintuzkete!  
[Hitzaldia]
3. Andrezaharraren manifestua [Ikuskizuna]
4. Loq, Loq, laguna [Ikuskizuna]
5. eRRe. Aldarri bat bertsoz [Ikuskizuna]
6. Lingui [Zineforuma]
7. Feminist agenda euskal literaturan [Irakurle-kluba]
8. Chi Kung-aren hastapenak [Lantegia]
9. Nire gorputza gudu-zelai bat da [Lantegia]
10. Zinema aditu: begirada eta entzumena artatuz – BERTAN BEHERA
11. Autodefentsa feminista (hastapena) [Lantegia] – BERTAN BEHERA
12. Aintzindariak. Dokumentala eta solasaldia
13. Bi zi. Bisexualitatea garaleku eta (ez) geltoki
14. Almendrako ibilbidea. Ikusgai egiteko historia bat: Emakumeak  
Gasteizen [Lantegia]

### Jarduera elebidunak:

1. “Online edota offline, libre izan nonahi” topaketa [Ikuskizuna]
2. Irakurketa okerrak, lecturas desviadas [Irakurle-kluba]
3. Denbora eta espazioa hezkuntzan [Lantegia]
4. Libanon errefuxiatutako emakume palestinarrek [Lantegia]

14

jarduera  
euskaraz


2

jarduera  
bertan behera

4

jarduera ele  
bietan

## Parte-hartzea, adin-tarteen arabera (513 erantzunen gainean)




Bertaratuen parte-hartzea nahikoa orekatua izan da 35-44, 25-34, 45-54 eta 55 urtetik gorako adin-tarteetan, % 26 eta % 22 artekoa. 35-44 adin-tarteak izan du parte-hartze handiena (% 26koa); 16-24 adin-tarteak, berriz, parte-hartzerik txikiena izan du, % 2rekin.

#Feminismoanitzel atalaren barruan programatzen dira 18 urtetik beherakoei zuzendutako jarduerak, eta bereizita sistematizatzen dira.

### Lehen aldiz parte hartzea

Ikasturte honetan lantegietan eta irakurle-klubetan parte hartu dutenen % 40k lehen aldiz egin dute; % 54k, berriz, aurretik ere parte hartu zuten noizbait.




Aurreko urteekin alderatuta ikus dezakegunez, goranzko joera txikia dago, azken hiru edizioetan % 37tik % 40ra igaro baita ehuneko hori.

Bestetik, aurretik noizbait parte hartu dutenen ehunekoak behera egin du pixkaka, 2020-2021 ikasturteko % 60tik % 54ra jaitsi baita 2022-2023 ikasturtean.

Edizioa	Lehenengo aldiz (%)	Errepikatzaileak (%)
2020-2021	37	60
2021-2022	39	57
2022-2023	40	54

## Balorazio orokorra

Lantegien balorazio orokorra (513 balorazioren gainean)



Parte-hartzaileen asebetetze-maila oso altua izan da. Trebatzaileei buruzko balorazioak lortu du puntuaziorik altuena (5,8koa), aurreko ikasturteetan bezalaxe (5,8koa 2021-2022an eta 5,7koa 2020-2021ean). Gainerako aldagaietan, ez da aipatzeko moduko aldaketarik izan.


## AMAIERAKO ZENBAIT GOGOETA

### 1.- PARTE-HARTZEAREN DATUEI BURUZ - AZKEN IKASTURTEETAKO ALDERAKETA

2022-2023 ikasturtean, 2.346 lagunek hartu dute parte aurrez aurreko formatuan (2.019 emakumek, 285 gizonen eta 16 ez-bitarrek), eta 270ek online; guztira, 2.616 pertsonak hartu dute parte. Aurrez aurreko parte-hartzean, goranzko joera dagoela ikusi dugu azken ikasturteetan; online parte-hartzeak, berriz, beheranzko joera dauka, baina horrek bat egiten du azken edizioetan aurrez aurreko formatua indartzeko proposamenarekin. Bestalde, aurreko ikasturtean baino 4 jarduera gehiago eskaini dira streaming bidez: 2 hitzaldi, Herri Handi hitzaldi 1 eta bekaren aurkezpena.

2.616 parte-hartzaile:

- 2.019 emakume
- 285 gizon
- 16 ez-binario
- 296 ez dakigu zer sexu/genero



## 2.- JARDUEREN FORMATUEI BURUZ

### Inaugurazioa eta itxiera:

Eskolaren inaugurazioa eta itxiera une giltzarriak dira programazioan. Ikasturte honetan, 480 lagun elkartu dira, aurreko ikasturtean baino 212 gehiago. **Pandemiaren aurretiko maila berera** itzuli da datua.

Aipatzekoa da itxiera-ekitaldiak aldaketa handia izan zuela, apirilean ikuskizuna aldatu behar izan baitzen, artista batzuk bajan zeudelako; azkenean, La Marerekin eta Eva Sierrarekin egin zen ekitaldia.



### Hitzaldiak:

Atal hau estrategikoa da, planteatutako gaietan adituak diren pertsonek ezagutzak eta ideiak azaltzen dituztelako eta ideia nahiz ezagutza horiek bertaratuekin kontrastatzeko aukera ematen duelako. Ikasturte honetan, 567 lagunek hartu dute parte: 297k aurrez aurre (256 emakume eta 41 gizon), eta 270ek online, honako taula honetan ikus daitekeenez:

Online/Aurrez aurre	Pertsonak Bistaratzek	Ehunekoa
<b>Herri Handi hitzaldiak (online bakarrik)</b>	83	% 15
<b>Aurrez aurreko hitzaldiak</b>	297 (256 emakume eta 41 gizon)	% 52
<b>Aurrez aurreko hitzaldien streaming bidezko bistaratzeak</b>	187	% 33
<b>GUZTIRA</b>	567	% 100

### Lantegiak:

Eskolako jarduera guztien % 49 dira. Programatutako 30 jardueretatik 24 egin dira.



Bertan behera utzitako 6 jardueretatik 3 inskripzio-faltagatik izan dira, eta beste 3rak trebatzaileen arazoengatik. Inskripzio-faltagatik bertan behera utzitako lantegietatik 2 euskaraz ziren.

### Egindako tailer egonkorrak:

Prestakuntza gehienek iraupen zehatza eta formatu trinkoa izaten dituzte; hala ere, indarrean jarraitzen du hausnarketa eta ekintza feministarako guneak ikasturte osoan zehar garatzeko apustuak, prozesu-ildoan lan gehiago egin dadin. Aurreko ikasturtean abian jarritako 4 talde egonkor mantendu dira:

- Club de lectura fácil feminista
- Club de lectura "Irakurketa okerrak, lecturas desviadas"
- Nire goputza gudu zelai bat da
- Club de lectura feminista "La hora violeta" (hastapeneko talde berria)

### Arte eszenikoak:

Formatu honetan, 7 jarduera programatu dira, eta guztiak egin dira (aurreko edizioan, 2021-2022koan, 8 programatu ziren, baina 7 egin): 3 euskaraz, 3 gaztelaniaz eta 1 ele bitan.

Ikuskizunak baliagarriak dira sentsibilizaziorako eta topaketarako; gainera, jende ugari erakartzen dute, eta Eskola ezagutzen ez zuten batzuk ere hurbildu dira. Halaber, Eskolaren ikusgaitasun soziala areagotzen dute. Ikasturte honetan, 731 lagunek hartu dute parte: 229 euskarazko ikuskizunetara joan dira (aurreko edizioan baino 145 gehiago), eta 55 ikuskizun elebidunetara.

**Ikuskizunak  
baliagarriak dira  
sentsibilizaziorako  
eta topaketarako**

### Zineforuma:

Duela hiru ikasturte, zineforum berria sartu zen Eskolaren programaziora, hiru udal-zerbitzu hauen lankidetzan oinarrituta: Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua, Bizikidetzeta eta Aniztasun

Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua. Berritasun gisara, edizio honetan, Garapenean Laguntzeko Zerbitzua eta BIZAN-Adinekoen Zerbitzua gaineratu zaizkie aurreko hirurei. Zineforum-saioak Florida zinema-aretoan egiten dira, proiektzioen nahiz geroko eztabaiden kalitatea eta baldintzak hobetzeko asmoz. Edizio honetan, aurrekoetan baino bi emanaldi gehiago programatu dira (guztira, 5). Programatutako 5 emanaldietatik 2 euskaraz izan dira, eta 3 gaztelaniaz, eta 345 lagun bertaratu dira (edizio honetako guztizko parte-hartzearen % 15).

Oro har, parte-hartzaile askok filma amaitzean alde egiten dute aretotik. Eztabaidan geratzen direnek modu aktiboan hartzen dute

parte (Zinhezbako Helena Gonzálezek dinamizatzen ditu eztabaidak). Eztabaidek, hala, filma ikustetik harago joz, gaiak aztertzeke eta gaien inguruan hausnartu nahiz hitz egiteko gunea eskaintzen dute.

**Zineforumetako parte-hartzeak gora egin du:**

- X. edizioa: 147
- XI. edizioa: 264 pertsona
- XII. edizioa: 345

Bertaratu batzuek adierazi dute filma beranduegi amaitzeagatik alde egin dutela aretotik. Hortaz, filmak lehenago hasteko premia identifikatu dugu, eztabaida hasten denean ordu atseginagoa izan dadin bertaratuentzat eta, horrela, errazago hartu ahal izan

dezaten parte.



### 3.-EUSKERA

Lantegietan parte hartu dutenen % 56k baieztatu dute lantegia euskaraz egiteko moduko maila daukatela (2021-2022 ikasturteko ehuneko berean; % 51ek adierazi zuten hori 2020-2021 ikasturtean, % 58k 2019-2020 ikasturtean, eta % 42k 2018-2019 ikasturtean); datu hori, baina, ez da parte-hartzean islatzen, parte-hartzaileen % 62k gaztelaniaz egiten baitute (% 61ek 2020-2022an eta % 81ek 2020-2021ean). 259 lagunek hartu dute parte jarduera elebidunetan (guztizko parte-hartzearen % 13). Aurreko ikasturtekoaren antzeko datua da, 233 parte-hartzaile izan baitziren (2021-2022ko guztizko parte-hartzearen % 14).



Honako taula honetan, euskaraz eskainitako jardueren eta parte-hartzaile nahikorik ez izateagatik bertan behera utzitako euskarazko jardueren arteko erlazioa ikus daiteke, ikasturtez ikasturte:

	<b>Euskaraz programatutako jarduerak</b>	<b>Bertan behera utzitako euskarazko jarduerak</b>	<b>Bertan behera utzitako jardueren %a, programatutako jarduerari dagokienez</b>
<b>2018-2019</b>	14	3	% 21,4
<b>2019-2020</b>	11	2	% 18,2
<b>2020-2021</b>	14	1	% 7,1
<b>2021-2022</b>	18	3	% 16,6
<b>2022-2023</b>	14	2	% 14,3

#### 4.- #FEMINISMOANITZEL

14 jarduera programatu dira, eta ez da bat bera ere bertan behera utzi (ondoz ondoko bigarren ikasturtez). Programatutako guztia arrakastatsua izan da, parte-hartzeari dagokionez; hala ere, ahalegin handiagoa egin behar izan da jardueren berri eman eta egingo zirela ziurtatzeko. 207 lagunek hartu dute parte (aurreko edizioan baino 53k gutxiagok).



Parte-hartzeak izandako beherakada horri dagokionez, aintzat hartu behar da aurreko ikasturtean 3 arte eszeniko programatu zirela (jarduera puntual horiek jende ugari erakartzen dute) eta edizio honetan bakarra programatu dela. Bestalde, ez ditugu sartu #Feminismoanitzel atalean programatutako 4 jardueratako datuak; 3tan, daturik ez dugulako, eta, bestean, uste dugulako errakuntzara eramango gintuzkeela, gehiegi areagotuko lukeelako parte-hartzaileen


14 jarduera  
programatu  
207 parte-  
hartaile  
Feminismoan  
Itzel atalean

kopurua. Gehienek ikastaroetan eta lantegietan hartu dute parte (111k, % 54k), eta, gero, arte eszenikoetan (90ek, % 43k) eta irakurle-klubetan (6k, % 3k).

Adin-tarteen arabera parte-hartzeari dagokionez, 10-13 urteko segmentuak jarraitzen du edukitzen parte-hartzaile gehien; beharbada, gurasoek edo arduradunek inskribatzen dituztelako. Hala ere, aintzat hartu behar dugu jarduera gehiago eskaintzen direla adin-tarte horretarako (14tik 8). Bestetik, Hezkuntza Zerbitzuarekin lankidetzan arituz, izen-emateek nabarmen egin dute gora, interesdun askorengana iritsi ahal izan direlako IGE-en, eskolen eta abarren bidez.

## 5.- KOMUNIKAZIOA ETA SARE SOZIALAK

Ohikoa denez, Eskolaren programazioa honako bitarteko hauen bidez hedatu da: urteko liburuxka, Gasteizko Udalaren weba, Berdintasun



Zerbitzuaren buletin digitala, Pikara Magazineren Almanakako hedapen puntuala eta sare sozialak (Facebook, Twitter eta Instagram). Euskarazko jarduerak Aleara bidali dira, eta agendan sartu ditu. Emakumeen Etxeak ere hedapen-kanalak dauzka jarduera programatuen berri emateko (WhatsApp eta Telegram).

Berdintasun Zerbitzuaren Facebookeko eta Twitterreko kontuen eta Etxearen Instagrameko kontuaren bidez ere, Eskolako jardueren berri eman da.


Instagrameko kontua 2022ko irailaren 15ean sortu zen. 2023ko uztailen, 1.211 jarraitzaile zeuzkan (aurreko urteko data berean baino 381 gehiago). Ikasturte honetan, 156 argitalpen egin dira.

Kalkuluen arabera, Instagrameko jarraitzaileen % 89 emakumeak dira, eta % 11 gizonak.

## 6.- BESTELAKO ALDERDIAK: HAURTZAINDEGIA, IRISGARRITASUNA ETA TOKIA:

### Hurtzaindegia, zaintza-zerbitzuak

Eskolako lantegi batean eskatu da hurtzaindegi-zerbitzua; honetan: Mujeres sordas conquistando espacios. 10 adingaberentzat eskatu zuten, baina zerbitzua erabili zuten familiek ez zuten bete berori baloratzeko inkestarik.



Hurtzaindegi  
-zerbitzua  
lantegi batean

### Zeinu-hizkuntzako interpreteak


Hitzaldi guztietan zeinu-hizkuntza eta azpitoluak sartzeko apustuak irisgarritasuna bermatzen die gorrei. Ikasturte honetan, ez da zeinu-hizkuntzako interpreterik eskatu beste jarduera batean ere.

Hitzaldietan ez ezik, beste jarduera batzuetan ere zeinu-hizkuntzako interpretea egon da: "Mujeres sordas conquistando espacios" lantegian eta "Mordiendo la verdad" arte eszenikoan. Horri esker, gor gehiagok hartu dute parte, eta Eskola gehiago hurbildu da kolektibo horretara.

### Monitore lagungarriak desgaitasun intelektuala dutenentzat

Lehen aldiz, monitore lagungarriak eskaini zaizkie desgaitasun intelektuala dutenei, Eskola gero eta irisgarri eta inklusiboagoa izan dadin. "Club de lectura fácil feminista" irakurle-klubean eta "Autodefensa feminista" lantegian (hastapenak, gaztelaniaz) erabili da zerbitzua.

Monitore-zerbitzua bi aldiz bakarrik eskatu bada ere, GOFeko profesionalen laguntzari esker jende gehiago animatu da lantegi horietan izena ematera. Honako lantegi hauetan izan da: "Técnicas para hablar en público" eta "Almendrako ibilbidea. Ikusgai egiteko historia bat: Emakumeak Gasteizen". Desgaitasun intelektuala duten emakume batzuek parte hartu dute horietan, baina ez dute monitore-zerbitzua behar izan.




Zerbitzua oso  
ondo baloratu  
dute

“Autodefensa feminista” lantegian izan ezik, jarduera guztietan baloratu dira oso ondo alderdi guztiak (begiraleak, trebatzailea, parte-hartzaileak eta Eskola). Balorazioan, argi ikusten da zer zailtasun egon diren desgaitasun intelektuala duten emakumeek autodefentsako lantegi horretan parte hartzeko baldintzak berma zitezten; beraz, antolatzaileek gaia gehiago sakondu beharko dute. Lankidetzan hori gehiago jorratzea komeni dela ikusi dugu, formatuak, metodologiak eta edukiak parte-hartzaileen premietara eta interesetara egokitu daitezten.

**Zerbitzua indartu nahi dugu**, eta horrek esan nahi du kolektibookin lan egiten duten beste elkarte eta entitate batzuekin lankidetzan aritu beharko dugula, eta ez haiek identifikatzen dituzten jardueretan monitoreak eskaintzeko bakarrik, baita programazio inklusibo eta irisgarria diseinatzeko ere.

### **Emakumeen Etxeko guneen kudeaketa eta dinamizazioa eta Eskolaren inpaktua**

Bigarren urtez, Jabetze Feministarako Eskola Emakumeen Etxearen parte izan da, prestakuntza-proiektu gisara, eta, horrela, bi proiektuak indartu ahal izan dira.



**Areto nagusia,  
gehien erabili  
den tokia**

Ohikoa denez, jarduera gehienak areto nagusian egin dira, edukiera handiena eta hornidura tekniko onena dituen tokia delako; atzetik, Txikigunea eta 2. tailerra datoz.

Nabarmendu beharra dago **Etxera gero eta jende gehiago hurbiltzen dela**, proiektua gero eta aitortza handiagoa jasotzen ari delako. Hala, arratsalde batzuetan, mugimendu handia egoten da, eta areto guztiak betetzen dira; izan ere, gero eta elkarte eta kolektibo feminista gehiagok erabili nahi dituzte Etxeko aretoak beren jarduerak egiteko, eta Eskolako jarduera batzuk Etxeko topaleku izatera pasa dira (horixe da, adibidez, bi irakurle-kluben kasua).

### **Ahalduntze kolektiboa**

Oraindik orain, prozesu-ildoan lan egitea erronka da, denbora-ibilbide luzeagoko planteamenduen bidez edo **emakumeen nahiz LGTBI**

**pertsonen parte-hartze soziopolitikoa indartu** dezaketen jardueren bidez. Ikasturte honetan ere, aurrekoan bezala, prozesu-ildoan lan egin ahal izan da, Emakumeen Etxearen eta Jabetze Feministarako Eskolaren proiektu batzuek bat egin dutelako. Eskolako jarduera batzuk, esate baterako, Etxera jauzi egin eta talde egonkor bihurtzeko programatu dira; horixe da, adibidez, **Nire gorputza gudu-zelai bat da** lantegiaren kasua (Eskolan bigarren aldiz programatu da). Taldeko parte-hartzaileek elkartzen jarraitu nahi dutela adierazi dute, nahiz eta amaieran parte-hartzaileen kopurua txikia izan.

Ikasturte honetan, prozesu-ildoan diseinatutako hainbat prestakuntzak egin dute jauzi Etxera:

**La hora violeta irakurle-kluba**, adibidez, Etxeko topalekuetara sartzeko abiapuntu gisa eskaintzen da, eta parte-hartzaileei aukera ematen zaie ahalduntze-prozesua irakurketaren bidez lantzen jarraitzeko. Gune horien helburua autonomia sustatzea bada ere, taldeak koordinatzailearen laguntza jasotzen jarraituko du datorren udara arte.

Eskolan sortu eta, prozesu-ildoan duen topaleku gisara, Etxearen parte izatera pasa den beste jarduera bat dugu **10 eta 13 urte bitartekoentzako autodefentsa feministako taldea**. Eskolan, 2018-2019ko ikasturtetik programatzen dira hastapen-mailako prestakuntza puntual horiek. XII. edizioan lehen aldiz, urteko talde batean ikasten eta hausnartzen jarraitzeko aukera eman zaie edizio honetako eta aurreko edizioetako parte-hartzaileei. Trebatzaileak gidatzen du taldea, eta 10 eta 13 urte bitarteko 10 parte-hartzaile dauzka.

**Urbanismo Feminista** lantegia Eskolan programatu zen, Etxean talde egonkor bat sortzeari begirako lehenengo prestakuntza izan zedin. 2021eko urrian egin zen lehenengo prestakuntza, eta, gero, Etxean elkartzen jarraitu du taldeak, aldizka aditu baten laguntza duela, hirigintza feministari buruz hausnartzen jarraitzeko.



**Wikikedada** topalekuaren eta **“Almendrako ibilbidea. Ikusgai egiteko historia bat: Emakumeak Gasteizen”** lantegiaren artean, Udalaren Hezkuntza Zerbitzuaren laguntzarekin. Hala, prestakuntza-proposamen bat sortu da, eta 2023-2024ko programazioan sartuko da (Hezkuntza Zerbitzuarekin lankidetzan).